

DURANGOKO UDALEKO EUSKARA PLANA

2008-2012

Udal barneko Euskararen Erabilera Plana



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

AURKIBIDEA

Testuingurua	3
Helburuak	4
Metodologia	5
Administrazio-atalen sailkapena	5
86/97 Dekretuaren arabera Durangori dagokion helburu mailakatua	8
HPSren irizpideak administrazio-atal elebidun eta euskarazkoentzat	8

1. DURANGOKO UDALAREN ADMINISTRAZIO-ATALAK

1.1. Administrazio-atal elebidunak	
1.1.1. Zerbitzu Orokorrak	9
1.1.2. Zerbitzu Ekonomikoak	9
1.1.3. Herritarren Segurtasuna	10
1.1.4. Bartolome Ertzilla Musika Eskola	10
1.1.5. Astarloa Kulturgintza	11
1.1.6. Udaleko Kirol Erakundea	11
1.2. Euskarazko administrazio-atalak	
1.2.1. Udal Euskaltegia	12
1.3. Mikroplanak	
1.3.1. Zerbitzu Teknikoak	12
1.3.2. Erakunde Autonomoak	13
1.4. Administrazio-atal berezia	
1.4.1. Lan brigada	13

2. DURANGOKO UDALAREN ARLOKAKO EGOERA

2.1. Durangoko Udalaren hizkuntza-egoera	
2.1.1. Hizkuntza eskakizunak, derrigortasun-datak eta ezagutza	15
2.2. Arlokako egoera eta helburuak	
2.2.1. Kanpo harremanak	16
2.2.2. Barne harremanak	17
2.2.3. Hizkuntza Paisaia	18
2.2.4. Baliabide Informatikoak	19

3. EUSKARA PLANA 2008-2012: PROPOSAMENA ETA ERABAKIAK

3.1. Euskara Planean sartuko diren administrazio-atalak eta langileak	21
3.2. Euskararen erabilerari buruzko neurriak	25
3.3. Kontratazio administratiboak	28
3.4. Dirulaguntzak	31
3.5. Barne-harremanak	31
3.6. Baliabide informatikoak.....	31
3.7. Hizkuntza-irizpideak jasotzea Udalak antolatutako ekimenen eskaintzan.....	31
3.8. Hizkuntza-eskubideak bermatzeko zerbitzu publikoa	31

4. KUDEAKETA PLANEN KRONOGRAMA 2009-2012

4.1. Kudeaketa Plana 2009	33
---------------------------------	----

5. ERANSKINA: DURANGOKO UDALAREN LANPOSTUEN ZERRENDA

Testuingurua

Durangoko Udalaren 2008-2012ko Euskara Planak ondorengo lege-testuetan du iturburua:

- **10/1982 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Erabilpena arautzen duena**

Herritarren hizkuntza-eskubideak aitortu eta herri-aginteek hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.

Legearen 14. atalak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortutako hizkuntza-eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea aurreikusten du eta administrazioetako plantiletan bi hizkuntza ofizialen derrigorrezko ezagutza duten lanpostuak finkatu beharra ere.

- **6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa**

Legearen V. Titulua eta hau garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako erregelamenduzko arauak euskararen ofizialtasunak funtzio publikoaren eremuan izan beharreko isla ez ezik, herri-administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuaren oinarri ere badira.

I. Plangintza-aldian (1990-1995), euskal herri-administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuak izan duen helburu nagusia administrazioaren giza bitartekoak arian-arian euskaraz ere jarduteko gaitzea izan da.

Durangoko Udaleko Osoko Bilkurak 1990ko martxoaren 15ean onartu zituen udaleko lanpostu guztiei hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun-datak jartzea.

Hurrengo urratsa izan zen hizkuntza eskakizuna egiaztatuta ez zuten langileak euskara ikastaroetara bidaltzea: bi ordukoak, bost ordukoak edota barnetegiak.

Udalak, sasoi hartan ahalegin handia egin zuen udal langileen euskara-maila ziurtatzen eta sendotzen: zenbait langile liberatu egin ziren eta, ondorioz, ordezkapenak egin behar izan ziren. Lagungarri izan zen IVA Pek eskainitako laguntza: euskara-ikastaroen kostua bere gain hartu zuen eta ordezkapenetarako dirulaguntzak ere esleitu zituen, kostuaren %50a.

- **86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.**

Dekretu honek elementu berriak erantsi dizkie lehenengo plangintza-aldiko arauari. Izan ere, lehen plangintza-aldian aurrerapauso nabarmenak eman badira euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten langileen kopuruan, orain administrazioaren baitan euskarazko erabilera areagotzeko ardura eta, hori lortzeko, neurri osagarriak hartu beharra azaltzen dira.

Durangoko Udalak, III. Plangintza-aldiko azken aldera, 2007. urtean alegia, onartu zuen Euskara Plana. Plangintza-aldia amaitzear zegoela kontuan izanda, helburu xumeak ezarri ziren, hau da, "jendaurreko lanpostuak" baino ez ziren Planean sartu, nahiz eta aurreratu egiten zen hurrengo Euskara Plana udaleko administrazio-atal gehienak hartuko zituela bere baitan.

Hortaz, VI. Plangintza-aldian gaudela kontuan izanik eta indarrean dagoen legedia betez, **Durangoko Udalak, euskararen erabilera normalizatzeko plana landu eta onartuko du 2008-2012 urtealdirako.**

Helburuak

Herri Administrazioetan euskararen erabilera indartzea eta areagotzea da euskara-planen **helburu nagusia**, bai zerbitzu-hizkuntza, bai lan-hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza-eskubideei erantzun ahal izateko.

Euskara Planon **helburu estrategikoek** helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko dituzte:

1. Herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu-hizkuntza izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatuz.
2. Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza izan dadin bermatzea.
3. Hala dagokionean, Euskara administrazio barneko lan-hizkuntza izan dadin bermatzea.

Testuinguru honetan EAEko Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legea onartu zenetik, herri-administrazioetan hainbat urrats eman da euskararen normalizazioa sustatu eta lortzearren. Horrela, EAEko uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea garatuz, herri-administrazioek, besteak beste, bertako langileek bere lan-eginkizunak euskaraz betetzeko hizkuntzaren ezagutza-maila egokia lor zezaten neurriak hartu zituzten, 1990-1995 plangintza-aldian.

86/97 Dekretuak aurreko plangintza-aldian egindako ibilbideari jarraitu eta ezagutzatik erabile-rarako jauzia emateko oinarriak ezarri zituen. Honela, eginbeharreko nagusia erakunde bakoitzak bere hizkuntza-egoeratik abiatuz "Euskararen erabilera normalizatzeko planak"¹ zehaztea eta abian jartzea izango da.

Laburbilduz, honakoak jaso behar ditu Durangoko Udaleko 2008-2012ko Euskara Planak:

- a) Erakundearen gaur egungo hizkuntza egoera: hizkuntza eskakizunak, derrigortasun-datak eta langileen euskara-maila.
- b) Erakundeak izendaturiko administrazio-atal elebidunak eta euskarazkoak. Zehatz-mehatz azaldu behar dira zein lanpostuk osatuko duten atal bakoitza eta langileen euskara-maila.
- c) Administrazio-atal elebidunek eta euskarazkoek hartuko dituzten neurriak. Esaterako: administratuekiko eta gainerako erakundeekiko ahozko zein idatzizko harremanak, jendaurreko ekitaldietan, argitalpenetan, hizkuntza paisaian eta, oro har, aipatutako hizkuntza helburuak betetzeko erakunde bakoitzak ezartzen dituen gainerako jardueresparruetan.
- d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak, batez ere, hirugarren batzuek herriarekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza baldintza berma daitezzen.

¹ Hemendik aurrera, "Euskara Plana" deituko zaie.

Metodologia

Durangoko Udalak III. Plangintza-aldiko Euskara Plana diseinatu zuenean "AEBE" programa jarraitu zuen (Administrazioetan Euskara Bermatzeko Egitasmoak), "Aebemet" izenaz ezagutzen dena. Oraingo honetan, ostera, "Aebemet" metodologia zehatz-mehatz jarraitu beharrean, aurreko plangintza-aldian jasotako informazio erabili da plan berriaren oinarri gisa.

Ezaugarriak:

1. Erakunde osoa hartzen du kontuan, hau da, Udala eta bere erakunde autonomoak. Eta, guztietan, egitura, funtzionamendua eta administrazio-atal desberdinen egoera aztertzen da.
2. Erakundearen helburu funtzionalak hartzen ditu kontuan eta erakundearen egoera soziolinguistikoari egokitutako lehentasunak finkatzen ditu.
3. Hasieratik helburu zehatzak, lorgarriak eta neurgarriak jartzen ditu.
4. Planaren proposamenean eta inplementazioan langileen partehartzea sustatzeko bideak ezartzen ditu.

Administrazio-atalen sailkapena

Euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/97 Dekretuaren 16. artikulua era honetan sailkatzen ditu administrazio-atalak izaeraren arabera:

- o Jendaurreko atala: beren zeregin nagusia, ahoz zein idatziz, administratuarekiko harremanetan oinarritzen denean.
- o Gizarte-izaerako atala: herri-administrazioaren harreman-sareak oso nabarmenak eta bereziki gizarte-mailakoak direnean.
- o Izaera orokorreko atala: bere zeregin nagusia batez ere administrazio barruko alorrean gertatzen denean.
- o Atal berezia: atal berezitat joko dira bitarteko eta baliabideak eskaintzen dituzten atal zein zerbitzuak. Gehienetan, eskuz egindako lanak burutzen dituzte, besteak beste, erai-kinen mantentze eta kontserbazio-lanak, obra, garbiketa eta holakoak edo, bestela, lan teknikoak burutzen dituzte instalakuntza zein ekipoen eta antzekoen mantentze eta kontserbazio-zereginetan.

Sailkapen hau Durangoko Udalera ekarriz, hauxe ateratzen zaigu:

ZERBITZU OROKORRAK			Lanpostuak guztira: 45
Jendaurrekoak: 20 Administraria (8) Informatzaile (1) Administrari Laguntzailea (3) Jakinarazlea (2) Kontserjea (5) Mantenu-garbiketako langilea (1)	Gizartekoak: 10 Gizarte ekintza/inmigrazioa ard (1) Kultura teknikaria (1) Gizarte langilea (1) Inmigrazio teknikaria (1) Aukera berdintasuneko teknik. (1) Itzultzaile-dinamizatzailea (1) 3. adinekoen teknikaria (1) Gazteria teknikaria (1) Alkatetzako administraria (1) Administrari laguntzailea (1)	Orokorrak: 15 Idazkari nagusia (1) Kontratazio eta ondare teknik. (1) Informazio eta kom. ardurad. (1) Datu prozesuko teknikaria (2) Giza baliabideetako teknikaria (1) Administraria (6) Administrari laguntzailea (3)	

ZERBITZU EKONOMIKOAK

Lanpostuak guztira: 9

Jendaurrekoak: 2Administraria (1)
Administrari laguntzailea (1)**Gizartekoak: 0****Orokorrak: 7**Kontu-hartzailea (1)
Diruzaina (1)
Ekonomilaria (1)
Diru-bilketako teknikaria (1)
Administraria (2)
Administrari laguntzailea (1)**ZERBITZU TEKNIKOAK**

Lanpostuak guztira: 14

Jendaurrekoak: 3Administrari (1)
Administrari laguntzaile (2)**Gizartekoak: 2**Toki Agendako teknikaria (1)
Obretako inspektorea (1)**Orokorrak: 9**Arkitekto burua (1)
Hirigintza diziplinako arkitekt. (1)
Hirigintzako aholkulari juridik. (1)
Obra zibileko burua (1)
Udal eraikinen burua (1)
Ingurumeneko teknikari (1)
Zerbitzuetako teknikari (1)
Delineatzaile-topografo (2)**ZERBITZU TEKNIKOAK – LAN BRIGADA**

Lanpostuak guztira: 23

Bereziak: 23**HERRITARREN SEGURTASUNA**

Lanpostuak guztira: 43

Jendaurrekoak: 0**Gizartekoak: 42**Subofiziala (1)
Segurtasuneko arduraduna (5)
Ikerketa agentea (10)
Segurtasuneko agentea (23)
Bigarren jarduneko agentea (2)
Mugikortasuneko laguntzailea (1)**Orokorrak: 1**

Ofiziala (1)

ERAKUNDE AUTONOMOAK

Lanpostuak guztira: 2

Jendaurrekoak: 0**Gizartekoak:****Orokorrak: 2**1 Gerentea
1 Administraria

BARTOLOME ERTZILLA MUSIKA ESKOLA

Lanpostuak guztira: 21

Jendaurrekoak: 2Administraria (1)
Kontserjea (1)**Gizartekoak: 19**Zuzendari (1)
Ikasketa-burua (1)
Musika irakaslea (8)
Biolin irakaslea (2)
Flauta irakaslea (1)
Txistu irakaslea (1)
Klarinete irakasle (1)
Saxofoi irakasle (1)
Biolontxelo irakasle (1)
Oboe irakaslea (1)
Kantu irakaslea (1)**Orokorrak: 0****UDAL EUSKALTEGIA**

Lanpostuak guztira: 8

Jendaurrekoak: 1

1 Administrari

Gizartekoak: 71 Zuzendari
6 Irakasle**Orokorrak: 0****ASTARLOA KULTURGINTZA**

Lanpostuak guztira: 11

Jendaurrekoak: 5Liburutegiko laguntzailea (4)
Menpekora (1)**Gizartekoak: 6**Liburutegiko arduraduna (1)
Museoko koordinatzailea (1)
San Agustineko koordinatzailea 1
Administraria (1)
Liburutegi eta artxiboko lag. (1)
Dinamizazio laguntzailea (1)**Orokorrak: 0****UDALEKO KIROL ERAKUNDEA**

Lanpostuak guztira: 18

Jendaurrekoak: 6

6 Harrera-mantenu

Gizartekoak: 61 Kiroletako teknikari
4 Begirale-sorosle
1 Hezkuntza fisikoko begirale**Orokorrak: 2**1 Administratzaile
1 Administrari**Bereziak: 4**

4 Mantenu eta garbiketa langile

Laburbilduz,

Durangoko Udala eta bere Erakunde Autonomoak

Lanpostuak guztira	194
➤ Jendaurrekoak	40
➤ Gizartekoak	91
➤ Orokorrak	36
➤ Bereziak	27

86/97 Dekretuaren arabera Durangori dagokion helburu mailakatua

Kontuan izanda Durango udalerriaren derrigortasun-indizea, 2001eko errolda aintzat hartuta, %58,65 dela, Durangoko Udalari **3. helburu mailakatua betetzea dagokio**. Eta honek esan nahi du Durangoko Udalak administratuari zerbitzua euskaraz eskaini behar diola bai ahoz eta baita idatziz ere. Eta honetarako,

- Jendaurreko administrazio-atal elebidunak ezarri behar ditu.
- Gizarte izaerazko eta izaera orokorreko ataletan ere administrazio-atal elebidunak ezarri behar ditu.

HPSren irizpideak administrazio-atal elebidun eta euskarazkoentzat

Hizkuntza Politikorako Sailburuordetzak hiru irizpide proposatzen ditu atal elebidunak izendatzeko eta euskara lan-hizkuntza izan dadila bermatzeko:

1. Atala osatzen duten lanpostuen %80ak derrigortasun-data izan behar dute ezarrita.
2. Ataleko langileen %80ak hizkuntza eskakizuna egiaztatua izan behar dute.
3. Atalburuak derrigortasun-data izan behar du ezarrita eta egiaztatuta.

Hortaz, 86/97 Dekretuaren 17.c) atalak ezartzen duena betetze aldera eta Hizkuntza Politikorako Sailburuordetzaren irizpideak eta baldintzak aintzat hartuz, hurrengo orrietan, Durangoko Udaleko administrazio-atalen sailkapenari ekingo zaio 2008-2012 Euskara Planean administrazio-atal elebidun moduan edo euskarazko administrazio atal moduan sartzeko. Honez gain, HPSren irizpidetakoren bat betetzen ez duten administrazio-ataletan mikroplanak jarriko dira martxan.

1. DURANGOKO UDALAREN ADMINISTRAZIO-ATALAK

1.1. ADMINISTRAZIO-ATAL ELEBIDUNAK:

86/1997 Dekretuak ematen duen definizioari jarraituz, administrazio-atal elebidunak dira beren zereginak Euskal Autonomia Elkarteke bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan, batean zein bestean, betetzen dituzten administrazio-atalak.

Honen haritik, jarraian zehaztu egingo ditugu Durangoko Udalak izendaturiko administrazio-atal elebidunak:

1.1.1. ZERBITZU OROKORRAK

Lanpostuen ezaugarriak				Langileen euskara maila				
Lanpostuak	Hutsik	Derrigortasun data	%	Egiaztatuta	%	DD ez baina egiaztatuta	Alf0	Euskara Planean
45	4	37	82,2	31	84	1	1	33

Proposamena: bete egiten dira Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak atal elebidunak izendatzeko proposaturiko hiru irizpide eta baldintzak. Ondorioz, "Zerbitzu Orokorrak" izeneko atala administrazio-atal elebiduna izendatzen da.

Euskara Planean sartuko diren langileak: 33.

1.1.2. ZERBITZU EKONOMIKOAK

Lanpostuen ezaugarriak				Langileen euskara maila		
Lanpostuak	Hutsik	Derrigortasun data	%	Egiaztatuta	%	Euskara Planean
9	2	9	100	7	100 ¹	7

¹ Zerbitzu ekonomikoetan lanean ari diren 7 langileek daukate egiaztatuta dagokien HE, beraz, egiaztatze-maila %100 dela esan daiteke. Gertatzen dena da "Diruzaina" eta "Ekonomilaria" lanpostuak hutsik daudela, eta ez da aurreikusten beteko direnik epe laburrean.

Atalburuak, kontu-hartzaileak, 4 HE du ezarria, eta 3HE egiaztatua du.

Proposamena: "Zerbitzu Ekonomikoak" izeneko atala administrazio-atal elebiduna izendatzen da.

Euskara Planean sartuko diren langileak: 7.

1.1.3. HERRITARREN SEGURTASUNA

Lanpostuen ezaugarriak			Langileen euskara maila					
Lanpostuak	Derrigortasun-data	%	Egiaztatuta	%	DD ez baina egiaztatuta	-1	Alf0	Euskara Planean
43	34	79	31 ¹	91	1	3	1	36

¹ Berez, egiaztatuta, 31 barik 27 dira, zeren 4 lanpostu oraindik bete gabe daude. Edozein modutan, oposaketa-lehiaketa deialdia hasita dago eta abendura orduko beteta egongo dira 4 lanpostuok. Laurek daukate derrigortasun-data iraungia, beraz, lanpostuez jabetuko diren langileak egiaztatuta edukiko dute dagokien hizkuntza eskakizuna. Horrexegatik sartu ditugu egiaztatuta baleude bezala.

Atalburuak, Ofizialak, 3 HE du ezarria, baina ez du ezer egiaztatu. Nolanahi ere, euskaldun zaharra da eta euskara erabiltzen du bere lan-jardunean.

Proposamena: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak atal elebidunak izendatzeko proposaturiko hirugarren baldintza betetzen ez bada ere, bidezkoa deritzogu "Herritarren Segurtasuna" izeneko atala administrazio-atal elebiduna izendatzea.

Euskara Planean sartuko diren langileak: 36.

1.1.4. BARTOLOME ERTZILLA MUSIKA ESKOLA

Lanpostuen ezaugarriak			Langileen euskara maila					
Lanpostuak	Derrigortasun-data	%	Egiaztatuta	%	DD ez baina egiaztatuta	-1	Alf0	Euskara Planean
21	16	76,2	13	81,2	1	3 ¹	1	18

¹ 4 "Musika irakaslek" 3HE dute ezarrita, eta 2HE egiaztatuta. Nolanahi ere, ez dute inolako arazorik klaseak euskaraz emateko. Horrexegatik sartuko dira Euskara Planean.

Proposamena: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak atal elebidunak izendatzeko proposaturiko lehenengo baldintza betetzen ez bada ere (portzentaia ez dabil %80tik oso urruti), "Bartolome Ertzilla Musika Eskola" izeneko erakunde autonomoa administrazio-atal elebiduna izendatzen da.

Euskara Planean sartuko diren langileak: 19.

1.1.5. ASTARLOA KULTURGINTZA

Lanpostuen ezaugarriak			Langileen euskara maila		
Lanpostuak	Derrigortasun-data	%	Egiaztatuta	%	Euskara Planean
11	11	100	11	100	11

Astarloa Kulturgintzak hiru atal biltzen ditu: Arte eta Historia Museoa, Udal Liburutegia eta San Agustin Kultur Gunea. Beraz, atalburu bat baino, **hiru atalburu** daude, eta hirurak dute 3HE ezarrita eta egiaztatuta.

Proposamena: bete egiten dira Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak atal elebidunak izendatzeko proposaturiko hiru irizpide eta baldintzak. Ondorioz, "Astarloa Kulturgintza" izeneko erakunde autonomoa administrazio-atal elebiduna izendatzen da.

Euskara Planean sartuko diren langileak: 11.

1.1.6. UDALEKO KIROL ERAKUNDEA

Lanpostuen ezaugarriak			Langileen euskara maila				
Lanpostuak	Derrigortasun-data	%	Egiaztatuta	%	-1	Alf0	Euskara Planean
18	14	77,77	8	57	2	1	11

Udaleko Kirol Erakundeak, berez, ez ditu erabat betetzen HPSren 1. eta 2. irizpideak, bai ordea 3. Edozein modutan, erakunde autonomo hau estrategikoa dela uste dugu, eta behar beharrezkoa ikusten dugu administrazio-atal elebiduna izendatzea. Arrazoiak, HPSren irizpideen arabera, hurrengo puntuetan zehazten dira:

1. Atalaren derrigortasun indizea ez da %80ra iristen, baina asko hurbiltzen da (%77,7).
2. Egiaztatu %60 inguruk bakarrik egiaztatu dute, baina badira beste 3 euskara maila egokia dutenak eta, ondorioz, arazo barik sartu daitezkeenak Planean. Gainera, euskara maila baxua duten langile gehienek "garbiketa eta mantenuan" dihardute; beraz, ez dira lehentasunekoak.
3. Atalburuak egiaztatua du ezarri zaion 3HE.

Proposamena: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak atal elebidunak izendatzeko proposaturiko lehenengo eta bigarren baldintza erabat betetzen ez badira ere, "Udaleko Kirol Erakunde" izeneko erakunde autonomoa administrazio-atal elebiduna izendatzen da.

Euskara Planean sartuko diren langileak: 11.

1.2. EUSKARAZKO ADMINISTRAZIO-ATALAK:

1.2.1. UDAL EUSKALTEGIA

Udal Euskaltegian 8 lanpostu daude: Zuzendaria, 6 irakasle eta administrari 1.

- Zuzendariak eta irakasleek ez dute derrigortasun-datarik, baina guztiek daukate 4HE egiaztatuta.
- Administrariak 3HE du ezarrita, eta egiaztatuta ere bai.

86/1997 Dekretuak ematen duen definizioari jarraituz, euskarazko administrazio-atalak dira beren zereginak, batez ere, euskaraz betetzen dituzten administrazio-atalak.

Proposamena: Udal Euskaltegiaren jarduna euskaraz burutzen denez, beste barik, "Udal Euskaltegia" izeneko erakunde autonomoa euskarazko administrazio-atala izendatzen da.

Langileak guztira: 8.

1.3. MIKROPLANAK:

1.3.1. ZERBITZU TEKNIKOAK

Lanpostuen ezaugarriak			Langileen euskara maila			
Lanpostuak	Derrigortasun-data	%	Egiaztatuta	%	DD ez eta egiaztatuta	Euskara Planean
14	11	78,57	10	90,90	1	11

Derrigortasun-data ezarrita duten lanpostuak ez dira gutxiagatik %80ra iristen, baina langile guztiek, bat izan ezik, egiaztatuta daukate dagokien HE. Gertatzen dena da atalburua dela (arkitekto-burua) ezarrita duen 4HE egiaztatuta ez duena. Beraz, ezinezkoa da "Zerbitzu Teknikoak" izeneko atala administrazio-atal elebiduna izendatu.

Proposamena: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak atal elebidunak izendatzeko proposaturiko hirugarren baldintza betetzen ez dela kontuan izanda, "Zerbitzu Teknikoak" izeneko atalerako mikroplana diseinatuko da.

Mikroplanean sartuko diren langileak: 11.

1.3.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK

Lanpostuen ezaugarriak			Langileen euskara maila				
Lanpostuak	Derrigortasun-data	%	Egiaztatuta	%	-2	Alf0	Euskara Planean
2	1	50	0	0	1 ¹	1 ²	2

¹ "Gerentea" lanpostuak 4HE du, baina derrigortasun-datarik ez du. Lanpostuaren jabe den langileak 2HE du egiaztatuta. Garrantzitsua da lanpostu hau ere Euskara Planean sartzea, azken baten, Udaleko erakunde autonomo guztietako gerentea baita.

² "Administraria" lanpostuak derrigortasun-data dauka jarrita, baina langileak ez du ezer egiaztatu, nahiz eta "Alf0" den. Edozein modutan, pertsona hau 2009an jubilatuko da, eta sartuko denak egiaztatuta izan behar du dagokion 2HE.

Proposamena: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak atal elebidunak izendatzeko proposaturiko hiru baldintza betetzen ez direla kontuan izanda, "Erakunde Autonomoak" izeneko atalerako mikroplana diseinatuko da.

Mikroplanean sartuko diren langileak: 2.

1.4. ADMINISTRAZIO-ATAL BEREZIA:**1.4.1. LAN BRIGADA**

Lanpostuen ezaugarriak			Langileen euskara maila				
Lanpostuak	Derrigortasun-data	%	Egiaztatuta	%	DD ez baina egiaztatuta	Alf0	Euskara Planean
23	2	8,68	1	50	7	3	

Administrazio-atal honek ez ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposaturiko baldintzetako bat ere betetzen, horrexegatik, VI. Plangintza-aldi honetan behintzat, ez da Euskara Planean sartuko.

2. DURANGOKO UDALAREN ARLOKAKO EGOERA ETA HELBURUAK

2.1. Durangoko Udalaren hizkuntza-egoera

2.1.1. Hizkuntza eskakizunak, derrigortasun-datak eta egiaztatze-maila

Hurrengo koadroan Durangoko Udalaren hizkuntza-egoerari buruzko informazioa jasotzen da: Administrazio-atalak, lanpostuak, hutsik daudenak, hizkuntza eskakizunak, derrigortasun-datak eta langileen hizkuntza gaitasuna. Halaber, administrazio-atal bakoitzean egiaztaturiko derrigortasunen ehunekoak ere biltzen dira.

ADM. ATALA	LANG KOP.	HUTSAK	DERRIGORTASUNAK	EGIAZTATUTAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA				EGIAZTATU GABEKOEN HIZKUNTZA GAITASUNA				
				EHUNEKOAK	4HE	3HE	2HE	1HE	0	1-7	EGA	ALFO
Zerbitzu Orokorrak	42	3	82,22	2	20	9	2		8		1	
Zerbitzu Ekonomikoak	7	2	100			2	5					
Zerbitzu Teknikoak	14	0	78,57	1	5	4			3	1		
Lan Brigada	23	0	7,40		2		6		12		3	
Herritarren Segurtasuna	37	6	81,39		6	20	3		5	2	1	
Erakunde Autonomoak	2	0	50,00			1					1	
Musika Eskola	21	0	76,19		13	5			2		1	
Udal Euskaltegia	8	0	12,50	7	1							
Astarloa Kulturgintza	11	0	100	2	5	3				1		
Udaleko Kirol Erakundea	18	0	77,77		4	3	4		5		2	
GUZTIRA	183	11	70,61	10	58	58	13		33	1	13	

Numero absolutuetan hauxe ateratzen da:

Langile kopurua	Lanpostu Hutsak	Derrigortasunak	Egiaztatuta ¹	Egiaztatu gabe ²	Salbuetsita ³	Derrigortasunik ez baina egiaztatuta ⁴
183	11	137	107	13	3	21

Hortaz, Durangoko Udalaren hizkuntza-eskakizunen egiaztatze-maila %84,92koa da.

Ehunekoa formula honetatik ateratzen da: DD izan eta dagokien HE egiaztatu duten langileak / DD duten lanpostuak – DD izan eta hutsik daudenak: $107/137-11 = 84,92$.

¹ Dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenen artean, alegia, 107 langileren artean, 20k, bere lanpostuari dagokion HE baino altuagoa daukate egiaztatuta.

² Egiaztatu gabeko 13 langileen artean, 8k, HE bat gutxiago daukate egiaztatuta; 1ek HE bi gutxiago eta 1 euskaldun zaharra da. Gainerako 4ak ez dute euskara-gaitasunik.

³ 3 adinagatik daude salbuetsita, eta beste 6 gaitasun ezagatik.

⁴ 1 HE: 7; 2 HE: 2; 3 HE: 5 eta 4 HE: 7

2.2.1. Kanpo harremanak

Egoera

Udalak udalaz kanpokoekin dituen harremanak dira kanpo-harremanak, bai ahozkoak bai idatzizkoak. Udalaren kanpo-harremanik ohikoenak honako hauekin izaten dira: herritarrak, erakunde publikoak, zerbitzu-enpresak eta hornitzaileak.

Kanpora begirako harremanen azterketa egin denean, hurrengo taulako egoera aurkitu dugu.

KANPO HARREMANAK										
Administrazio-atala	Euskararen erabilera Ahoz.					Euskararen erabilera Idatziz.				
	Lagina	Adie. %	Eusk.	Eleb.	Gazt.	Lagina	Adie. %	Eusk.	Eleb.	Gazt.
Zerbitzu Orokorrak	23	60,87	3	11	9	36	58,33	1	20	15
Zerbitzu Ekonomikoak	10	30,00	1	2	7	16	100	0	16	0
Zerbitzu Teknikoak	10	100	0	10	0	24	66,67	0	16	8
Herritarren Segurtasuna	10	40,00	0	4	6	16	25,00	0	4	12
Musika Eskola	20	75,00	5	10	5	20	40,00	0	8	12
Astarloa Kulturgintza	20	75,00	12	3	5	24	95,83	11	12	1
Udaleko Kirol Erakundea	10	60,00	0	6	4	12	33,33	0	4	8
UDALA GUZTIRA	103	65,05	21	46	36	148	62,16	12	80	56

* Adierazleen portzentajea lortzeko euskarazko eta ele bietakoak hartu izan dira kontuan.

Helburuak

Ahozko kanpo-harremanak: arreta berezia jarriko zaie herritarrekin izaten diren harremanei eta harremanotan euskararen erabilera areagotzeari.

Idatzizko kanpo-harremanak: Bi arlo hauetan eragitea aurreikusten da:

- Herritarrek helarazitako agirietan.
- Erakunde Publikoekiko harreman idatzietan.

2.2.2. Barne harremanak

Egoera

Barne-harremanak langileek eurak kokatuta dauden administrazio-atalaren baitan zein beste atal batzuekin dituzten harremanak dira. Barne-harremanetan sartzen dira atal barneko dokumentuak eta atalen artekoak, arduradun politikoeekin egiten diren batzarrak eta, orokorrean, udalaren ohiko funtzionamendurako harremanak.

Kanpo-harremanetan egin den bezala barne-harremanetan ere ahozkoak eta idatzizkoak desberdinu dira.

Ondoko koadroan ikus daiteke atal bakoitzean jaso den laginaren zenbatekoa eta bai ahozko bai idatzizko harremanen erabilera-indizea ere.

BARNE HARREMANAK										
Administrazio-atala	Euskararen erabilera Ahoz.					Euskararen erabilera Idatziz.				
	Lagina	Adie. %	Eusk.	Eleb.	Gazt.	Lagina	Adie. %	Eusk.	Eleb.	Gazt.
Zerbitzu Orokorrak	12	25,00	0	3	9	31	29,00	2	7	22
Zerbitzu Ekonomikoak	10	60,00	1	5	4	16	25,00	0	4	12
Zerbitzu Teknikoak	10	30,00	0	3	7	12	0	0	0	12
Herritarren Segurtasuna	10	0	0	0	10	18	17	0	3	15
Musika Eskola	10	0	0	0	10	26	12	3	0	23
Astarloa Kulturgintza	10	40	4	0	6	27	41	5	6	16
Udaleko Kirol Erakundea	10	50	0	5	5	11	0	0	0	11
UDALA GUZTIRA	72	29,17	5	16	51	141	21,28	10	20	111

* Adierazleen portzentajea lortzeko euskarazko eta ele bietakoak hartu izan dira kontuan.

Helburuak


Jendaurreko lanpostuetako harremanetan, lan egiteko erabiltzen den hizkuntza, ahoz zein idatziz, euskara izatea da helburua. Hori abiapuntutzat hartuta, euskararen barne-erabilera era mailakatuan sustatzea aurreikusten da.

Ahozko barne-harremanetan, jendaurreko lanpostuetan beti ere, euskararen erabilera bermatzea izango da helburua.

2.2.3. Hizkuntza paisaia

Hizkuntza-paisaia, udalaren irudia osatzen duten elementuek, balio sinboliko nahiz informatiboa dutenek, gorpuzten dute. Kanpoko hizkuntza paisaian errotulu nagusiak, informazio eta norabidezko errotuluak, aparkalekuetakoak, katalogo, gida, prentsa iragarki, megafonia eta etiketak jasotzen dira; barruko hizkuntza paisaian, berriz, barruko informazio eta norabide-errotulazioa, bulegoetako dietario, egutegiak, e.a., tresneria, kafe-makina eta fotokopiagailuetakoak, zigiluak, anagramak, jasotzen dira.

Egoera



Egoeraren azterketa, leku fisikoen arabera egin da: Udaletxean eta erakunde autonomo guztietan, barrura begira zein kanpora begira.

Barrukoa diogunean, departamentu barruko hizkuntza-paisaiaz ari gara: zigiluak, gutun-azalak, barne-errotulazioa, ...

Kanpokoa diogunean, departamentuz kanpoko hizkuntza paisaiaz ari gara: departamentu bakoitzaren errotulu nagusiak, informaziozkoak, norabidezkoak, katalogoak, gidak, prentsa, irratia, telebista, etiketajeak, e.a.

Hizkuntza-paisaiaren egoera zaintzeko ahalegin handia egin dela nabarmena da. Barruko hizkuntza-paisaian indizerik baxuenak bulegoetako dietario-egutegietan, tresnerian, su-itxalgailu, fotokopiagailu eta antzekoetan ematen dira.

Helburua

Helburua Udalaren irudian, oro har, euskararen presentzia bermatzea da; batez ere, begi bistakoak izanik, eragin nabarmena duten elementuei garrantzi handiagoa emanez, bai barrura bai kanpora begira: bulegoetako errotulu nagusiak, etiketak, barruko informazioa, zigilu, fax-orri, kale-izen, udal-eraikuntzen izenak eta abar.

Arreta berezia eskainiko zaie jendaurreko bulegoetako fitxategi, artxibadore eta, orokorrean, eguneroko lanarekin lotutako elementuei, esaterako, zigilu, fax-orri e.a. baita Udalaren kanpoko irudiari lotutako zenbait elementuri ere.

2.2.4. Baliabide informatikoak

Egoera

Gero eta garrantzi handiagoa hartuko duen alorra dugu, udaletako funtzionamenduan gero eta informatika-baliabide gehiago erabiliko direlako datozen urteotan. Horrela bada, informatikaren eta teknologia berrien munduan ere, arian-arian, hizkuntza-normalkuntzari ekitea komeni da.

Administrazio-atala	Programa Informatikoa	Hizkuntza	Hizkuntza aldatzeko aukerak
Guztietan	Windows 98, 2000 eta XP Office 97, 2000 eta XP TAO <ul style="list-style-type: none"> ○ Errolda ○ Tasak eta zergak ○ Erregistroa ○ Espedienteak ○ Dirulaguntzak 	Gaztelaniaz	Aukera egon daiteke Windows eta Office euskaraz jartzeko zenbait lanpostutan
Zerbitzu Orokorrak	Nominak Sarbidia	Gaztelaniaz	
Zerbitzu Ekonomikoak	Diru-bilketa Kontabilitatea	Gaztelaniaz	
Zerbitzu Teknikoak	Autocad – Microstation Presto	Gaztelaniaz	
Herritarren Segurtasuna	Gestión P.M.	Gaztelaniaz	
Musika Eskola	Zentroaren kudeaketa	Gaztelaniaz	
Udal Euskaltegia	Kudeaketa Multimedia programak	Euskaraz	
Astarloa Kulturgintza	Liburutegia: <ul style="list-style-type: none"> ○ Absysnet 	Euskaraz eta Gaztelaniaz	
	Artxiboa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Knossys ○ Filemaker 	Gaztelaniaz	
Udaleko Kirol Erakundea	Kirol guneetara sartzeko kontrola	Gaztelaniaz	Euskaraz jarri daiteke, berria erosteko baitira

Durangoko Udalaren Euskarazko programa informatikoen erabilera indizea 2,44 da.

Helburua

Helburua, baliabide informatikoak euskaraz erabiltzea da, beti ere euskarazko bertsioek, erdarazkoaren kalitatea ziurtatzen duten neurrian.

Gaztelaniazko bertsioak erabiltzen dira nagusiki.

Windows eta Office programen euskarazko bertsioak, apurka-apurka, sartzeari aurreikusten da.

Horrez gain, euskararen erabilerarako interesgarria litzateke (baita udalaren beraren funtzionamendurako ere) informatika-sareetan sartzeari, administrazio publiko eta erakundeek sarean dituzten baliabideak aprobetxatu ahal izateko (euskalterm, administrazio-idazkiak, hiztegiak).

3. EUSKARA PLANA 2008-2012

PROPOSAMENA ETA HIZKUNTZA-ERABAKIAK

Hurrengo lerroetan, 86/97 Dekretuaren 18. atalak ezartzen duenaren arabera, Durangoko Udalaren 2008-2012ko Euskara Planaren proposamena egingo da, hau da: zein langile sartuko diren planean, administrazio-atal elebidunak, euskarazkoak eta mikroplanak eta Udalak hartuko dituen hizkuntza-politika eta jarraibide nagusiak.

3.1. Euskara Planean sartuko diren administrazio-atalak eta langileak

86/97 Dekretuaren 17.c) artikulua ezartzen duena betez eta aurreko lerroetan emandako azalpenak aintzat hartuta, Durangoko Udalak 6 administrazio-atal elebidun izendatu ditu, euskarazko administrazio-atal bat eta 2 mikroplan jarriko ditu abian 2008-2012ko Euskara Planean.

“Zerbitzu Teknikoak – Lan Brigada” ez da Euskara Planean sartuko, lanpostu guztiak izaera berezikoak direlako.

Hurrengo koadroetan Euskara Planean sartuko diren langileen ezaugarriak zehaztuko dira: lanpostuaren izena, izaera, langilearen izen-deiturak, hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data eta langileak egiaztatutako euskara maila.

Maiuskulaz agertzen diren izen-deiturak aldi baterako langileez horniturik daudela esan nahi du. Minuskulaz agertzen direnak funtzionarioak edo lan hitzarmen finkodun langileak dira.

3.1.1. ADMINISTRAZIO-ATAL ELEBIDUNAK:

Zerbitzu Orokorrak

Guztira: 33

Kodea	Dot.	Lanpostua	Izaera	Izen-deiturak	HE	Derrigortasuna	Egiaztatuta
1001	01	Idazkari Nagusia	Orokorra		4	15/03/1990	4HE
1002	01	Idazk, Kont. eta Ondare teknikaria	Orokorra		4	18/12/2003	4HE
1005	02	Datu prozesuko teknikaria	Orokorra		3	29/03/2001	3HE
1008	01	Kultura teknikaria	Gizartea		3	18/12/2003	3HE
1009	01	Gizarte Langilea	Gizartea		3	18/12/2003	2HE
1010	01	Aukera berdintasuneko teknikaria	Gizartea		3	18/12/2003	3HE
1011	01	Itzultzaile-dinamizatzaila	Gizartea		TG4		4HE
1012	01	3. Adinekoen teknikaria	Gizartea		3	18/12/2003	3HE
1013	01	Gazteria eta kiroletako eragilea	Gizartea		3	18/12/2003	3HE
1014	01	Inmigrazio teknikaria	Gizartea		3	23/11/2006	3HE
1015	01	Alkatetzako administraria	Gizartea		3	21/12/1998	3HE
1017	01	Administraria (Pertsonala)	Orokorra		2	21/03/2001	2HE
1018	01	Administraria (Datu prozesua)	Orokorra		2	15/03/1990	3HE
1019	01	Administraria	Orokorra		2	28/02/2005	2HE
1020	01	Administraria (Infor/Erreg.)	Jendaurrea		2	21/10/1990	2HE
1021	01	Administraria (HAZ – SAC)	Jendaurrea		3	18/12/2003	3HE
1021	02	Administraria (HAZ – SAC)	Jendaurrea		3	18/12/2003	3HE
1021	03	Administraria (HAZ – SAC)	Jendaurrea		3	18/12/2003	3HE
1021	04	Administraria (HAZ – SAC)	Jendaurrea		3	29/03/2001	3HE
1021	05	Administraria (HAZ – SAC)	Jendaurrea		3	18/12/2003	3HE
1022	01	Herri Politiketako administraria	Jendaurrea		3	10/11/2005	3HE
1023	01	Estatistika eta inmigrazio adminis.	Jendaurrea		2	11/11/2005	3HE
1024	01	Informatzailea (HAZ – SAC)	Jendaurrea		3	29/03/2001	3HE
1025	01	Administrari laguntzailea	Jendaurrea		2	01/03/1991	2HE
1025	02	Administrari laguntzailea	Jendaurrea		2	15/03/1990	3HE
1025	03	Administrari laguntzailea	Orokorra		2	30/12/1999	2HE

1025	05	Administrari laguntzailea	Orokorra	2	01/09/1992	2HE
1025	06	Administrari laguntzailea	Gizartea	3	29/03/2001	3HE
1025	07	Adm. Laguntzailea	Jendaurrea	2	06/02/2003	2HE
1026	01	Jakinarazlea	Jendaurrea	1	01/09/1991	1HE
1026	02	Jakinarazlea	Jendaurrea	2	01/09/1991	2HE
1028	01	Eskolako kontserjea (Zabalarra)	Jendaurrea	1	01/09/1991	3HE
1030	01	HAZeko kontserjea	Jendaurrea			2HE

ZERBITZU EKONOMIKOAK**Guztira: 7**

Kodea	Dot.	Lanpostua	Izaera	Izen-deiturak	HE	Derrigortasuna	Egiaztatuta
1101	01	Kontu-hartzailea	Orokorra		4	31/12/2002	3HE
1104	01	Diru-bilketa teknikari nagusia	Orokorra		3	29/03/2001	3HE
1105	01	Administraria (Diru-biketa)	Jendaurrea		2	29/03/2001	2HE
1106	01	Administraria (Kontu-hartzailetza)	Orokorra		2	21/02/2002	2HE
1106	02	Administraria (Kontu-hartzailetza)	Orokorra		2	15/03/1990	2HE
1107	01	Administrari laguntzailea	Jendaurrea		2	01/09/1991	2HE
1107	02	Administrari laguntzailea	Orokorra		2	29/03/2001	2HE

HERRITARREN SEGURTASUNA**Guztira: 36**

Kodea	Dot.	Lanpostua	Izaera	Izen-deiturak	HE	Derrigortasuna	Egiaztatuta
1402	01	Ofiziala	Orokorra		3	06/02/2003	AIfO
1403	1	Sufofiziala	Gizartea		3	31/12/2006	3HE
1404	1	Segurtasuneko arduraduna	Gizartea		2	01/03/1992	2HE
1404	2	Segurtasuneko arduraduna	Gizartea		2	01/09/1992	2HE
1404	3	Segurtasuneko arduraduna	Gizartea		2	01/03/1992	2HE
1404	4	Segurtasuneko arduraduna	Gizartea		2	30/07/1995	2HE
1404	5	Segurtasuneko arduraduna	Gizartea		2	30/07/1995	1HE
1405	1	Ikerketa Agentea	Gizartea		2	30/07/1995	2HE
1405	3	Ikerketa Agentea	Gizartea		2	01/09/1992	2HE
1405	4	Ikerketa Agentea	Gizartea		2	01/09/1992	2HE
1405	5	Ikerketa Agentea	Gizartea		2	15/03/1990	2HE
1405	6	Ikerketa Agentea	Gizartea		2	15/03/1990	2HE
1405	7	Ikerketa Agentea	Gizartea		2	01/03/1992	3HE
1405	8	Ikerketa Agentea	Gizartea		2	01/09/1994	2HE
1405	9	Ikerketa Agentea	Gizartea		2	15/03/1990	2HE
1406	2	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2	15/03/1990	2HE
1406	4	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2	15/03/1990	
1406	5	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2		3HE
1406	6	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2	01/09/1992	2HE
1406	7	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2	30/07/1995	2HE
1406	8	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2	30/07/1995	
1406	9	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2		1HE
1406	11	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2	30/12/1999	2HE
1406	12	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2	29/03/2001	EGA
1406	13	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2	01/09/1994	2HE
1406	14	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2	04/12/1997	2HE
1406	15	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2	29/03/2001	2HE
1406	16	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2	29/03/2001	
1406	17	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2	21/02/2002	2HE
1406	18	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2	06/02/2003	3HE
1406	19	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2	06/02/2003	2HE
1406	20	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2	06/02/2003	EGA
1406	21	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2	31/12/2007	3HE
1406	22	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2	31/12/2007	
1406	23	Segurtasuneko Agentea	Gizartea		2	31/12/2007	3HE
1408	1	Mugikortasuneko laguntzailea	Gizartea		2		1HE

BARTOLOME ERTZILLA MUSIKA ESKOLA**Guztira: 18**

Kodea	Dot.	Lanpostua	Izaera	Izen-deiturak	HE	Derrigortasuna	Egiaztatuta
1601	1	Irakaslea - Zuzendaria	Gizartea		3	25/06/1998	3HE
1602	1	Irakaslea - Ikasketa burua	Gizartea		3	06/02/2003	3HE
1603	2	Musika Irakaslea	Gizartea		3	30/07/1995	2HE
1603	3	Musika Irakaslea	Gizartea		3	30/07/1995	2HE
1603	4	Musika Irakaslea	Gizartea		3	01/09/1993	3HE
1603	6	Musika Irakaslea	Gizartea		3	30/07/1995	3HE
1603	7	Musika Irakaslea	Gizartea		3	30/07/1995	2HE
1604	1	Biolin Irakaslea	Gizartea		3		3HE
1604	2	Biolin Irakaslea	Gizartea		3	12/01/1995	3HE
1605	1	Flauta Irakaslea	Gizartea		3	15/03/1990	3HE
1606	1	Txistu Irakaslea	Gizartea		3	23/12/1996	3HE
1607	1	Klarinete Irakaslea	Gizartea		3	23/12/1996	3HE
1608	1	Saxofoi Irakaslea	Gizartea		3	29/03/2001	3HE
1609	1	Biolontxelo Irakaslea	Gizartea		3	29/03/2001	3HE
1610	1	Oboe Irakaslea	Gizartea		3	29/03/2001	3HE
1611	1	Kantu Irakaslea	Gizartea		3	25/10/2005	3HE
1612	1	Administraria	Jendaurrea		2	23/11/2006	2HE
1613	1	Kontserjea	Gizartea		1		Alf0

ASTARLOA KULTURGINTZA**Guztira: 11**

Kodea	Dot.	Lanpostua	Izaera	Izen-deiturak	HE	Derrigortasuna	Egiaztatuta
1801	1	Liburutegi eta Artxiboko ardur.	Gizartea		3	23/11/2006	4HE
1802	1	Museoko koordinatzailea	Gizartea		3	25/06/1998	3HE
1803	1	San Agustineko koordinatzaile	Gizartea		3	29/03/2001	3HE
1804	1	Administraria	Gizartea		2	31/12/2000	2HE
1805	1	Liburutegi eta artxiboko lag.	Gizartea		2	31/12/2000	2HE
1806	1	Liburutegiko laguntzailea	Jendaurrea		2	04/12/1997	3HE
1806	2	Liburutegiko laguntzailea	Jendaurrea		2	23/11/2006	EGA
1806	2	Liburutegiko laguntzailea	Jendaurrea		2	18/12/2003	3HE
1806	3	Liburutegiko laguntzailea	Jendaurrea		2	23/11/2006	3HE
1807	1	Dinamizazio laguntzailea	Gizartea		3	10/11/2005	4HE
1808	1	Menpekoa	Jendaurrea		2	06/02/2003	2HE

UDALEKO KIROL ERAKUNDEA**Guztira: 11**

Kodea	Dot.	Lanpostua	Izaera	Izen-deiturak	HE	Derrigortasuna	Egiaztatuta
1901	1	Kiroletako teknikaria	Gizartea		3	18/12/2003	3HE
1902	1	Administratzailea	Orokorra		2	01/09/1991	2HE
1903	1	Administraria	Orokorra		3	23/11/2006	3HE
1904	1	Begirale soroslea	Gizartea		2	01/09/1992	3HE
1904	2	Begirale soroslea	Gizartea		2	01/09/1992	2HE
1904	3	Begirale soroslea	Gizartea		2	31/12/2002	1HE
1905	1	Hezkuntza Fisikoko Begiralea	Gizartea		2	30/07/1995	1HE
1906	1	Harrera-Mantenua	Jendaurrea		1		Alf0
1906	4	Harrera-Mantenua	Jendaurrea		2	31/07/2002	2HE
1906	5	Harrera-Mantenua	Jendaurrea		2	31/07/2002	3HE
1906	6	Harrera-Mantenua	Jendaurrea		2	06/02/2003	1HE

3.1.2. ADMINISTRAZIO-ATAL EUSKARAZKOA:**UDAL EUSKALTEGIA****Guztira: 8**

Kodea	Dot.	Lanpostua	Izaera	Izen-deiturak	HE	Derrigortasuna	Egiatzatuta
1701	1	Irakaslea - Zuzendaria	Gizartea		TG4		4HE
1702	1	Irakaslea	Gizartea		TG4		4HE
1702	2	Irakaslea	Gizartea		TG4		4HE
1702	3	Irakaslea	Gizartea		TG4		4HE
1702	4	Irakaslea	Gizartea		TG4		4HE
1702	5	Irakaslea	Gizartea		TG4		4HE
1702	6	Irakaslea	Gizartea		TG4		4HE
1703	1	Administraria	Jendaurrea		3	28/02/2005	3HE

3.1.3. MIKROPLANAK:**ZERBITZU TEKNIKOAK****Guztira: 11**

Kodea	Dot.	Lanpostua	Izaera	Izen-deiturak	HE	Derrigortasuna	Egiatzatuta
1202	1	Hirigintza diziplinako arkitekto	Orokorra		4	06/02/2003	4HE
1203	1	Hirigintzako aholkulari juridiko	Orokorra		3	28/02/2005	3HE
1204	1	Obra Zibileko burua	Orokorra		3		EGA
1205	1	Udal eraikinen burua	Orokorra		3	21/12/1998	3HE
1206	1	Ingurumeneko teknikaria	Orokorra		3	30/12/1999	3HE
1207	1	Toki Agendako teknikaria	Gizartea		3	10/11/2005	3HE
1208	1	Zerbitzuetako teknikaria	Orokorra		2	01/09/1991	2HE
1210	1	Administraria	Jendaurrea		2	29/03/2001	3HE
1211	1	Obretako inspektorea	Gizartea		2	21/02/2002	3HE
1212	1	Administrari laguntzailea	Jendaurrea		2	15/03/1990	2HE
1212	2	Administrari laguntzailea	Jendaurrea		2	15/03/1990	2HE

ERAKUNDE AUTONOMOAK**Guztira: 2**

Kodea	Dot.	Lanpostua	Izaera	Izen-deiturak	HE	Derrigortasuna	Egiatzatuta
1501	1	Gerentea	Orokorra		4		2HE
1502	1	Administraria	Orokorra		2	01/09/1992	Alfo

Laburbilduz,

Administrazio-atal elebidunak	Lanpostuak guztira	Euskara Planean
Zerbitzu Orokorrak	45	33
Zerbitzu Ekonomikoak	9	7
Herritarren Segurtasuna	43	36
Bartolome Ertzilla Musika Eskola	22	18
Astarloa Kulturgintza	11	11
Udaleko Kirol Erakundea	18	11
Administrazio-atal euskarazkoak		
Udal Euskaltegia	8	8
Mikroplanak		
Zerbitzu Teknikoak	14	11
Erakunde Autonomoak	2	2
GUZTIRA	172	137

3.2. Euskararen erabilerari buruzko neurriak

Durangoko Udalak irizpide zehatzak hartuko ditu euskararen erabilpenari buruzko ondorengo esparru hauetan:

3.2.1. Durangoko Udalaren hizkuntza-egoera etengabe ikuskatzea eta gaurkotzea

Lanpostuen zerrenda (ikus eranskina): Durangoko Udalaren hizkuntza-egoera zein den erakusten duten tauletan lanpostuari eta langileari buruzko ezaugarriak agertzen dira: lanpostuaren izena, kodea, kidegoa, taldea, hizkuntza eskakizuna eta, hala balegokio, derrigortasun-data; halaber, lanpostua betetzen duen langilearen izen-deiturak, jaiotze data, NAN zenbakia, egiaztatuta duen hizkuntza eskakizuna edota euskara-maila.

Lanpostu berriak: arreta berezia jarriko da lanpostu berriak sortzen direnean. Euskara teknikariak informea helaraziko dio ogasun eta pertsonal batzordeari sortuko den lanpostuari zein hizkuntza eskakizun dagokion esateko.

Halaber, derrigortasun-data jartzea ere proposatuko du lanpostuaren ezaugarriek halaxe eskatzen dutenean. Euskara teknikariak proposamena egin ostean, eta Udalak erabakia hartu baino lehen, txostena eskatuko zaio HPSri.

Hizkuntza Eskakizunak bateratzea eta egokitzea: Badira talde berekoak izan arren, hizkuntza eskakizun bera ez duten zenbait lanpostu. Euskara zerbitzuak proposamena egingo du talde bereko lanpostuek hizkuntza eskakizuna bera izan dezaten, betiere, lanpostuaren jabe denari eragiten ez dion bitartean. Halaber, lanposturen batek dagokiona baino hizkuntza eskakizun baxuagoa baldin badu, berau aldatzea proposatuko da. Aldaketa guzti hauek burutu baino lehen, txostena eskatuko zaio HPSri.

3.2.2. Langileen prestakuntza

Euskara ikastaroak: Lanpostu guztien derrigortasun-data iraungita dago dagoeneko. Beraz, une honetan, ez da langilerik eskolaratzen lanorduetan. Euskara ikastaroetara joaten diren langile bakanak lanorduz kanpo eta euren euskara maila hobetzeko doaz.

Honez gain, Durangoko Udalak euskara ikasteko aukera eta erraztasunak emango dizkie Euskara Planean sartuta ez dauden langileei.

Bestelako ikastaroak: Arian-arian ikastaroak euskaraz egiteko eskaintza ugarituz joango da hizkuntza-gaitasun nahikoa duten langileentzat. Prestakuntza-eskaintza guztietan espresuki aipatuko da ikastaroan erabiliko den hizkuntza. Euskarazko eskaintzaren ezaugarriek gaztelaniazkoetakoek bezain erakargarriak izan beharko dute.

Trebakuntza: Ahalegin handiena arlo honetan egingo da. Euskara Planeko 137 langileen artean lehentasunak ezarriko dira trebakuntzari dagokionez. Esaterako, jendaurreko lanpostuetan eta gizarte izaerakoetan dihardutenak lehenetsiko dira.

Euskara Plana eragingarria izan dadin trebakuntza-saioak egin beharko dira Udaleko administrazio-atal guztietako langileekin. Prestakuntza pertsonala izango da eta langile bakoitzak egiten dituen lan-jardunei lotuta egongo da, eta epe mugatua izango dute. Langile bakoitzaren lan-jardunetara mugatuta egoteak esan nahi du langileari bere lana burutzeko behar duen laguntza eskainiko zaiola, eta laguntza hau mugatua izango da denboran: langilea behar den moduan prestatuta dagoenean amaitu egingo dira trebakuntza-saioak.

Zeintzuk langile sartuko diren trebakuntza-saioetan urteko kudeaketa planean zehaztuko da. Egutegia ere zehaztu beharko da, baina irizpide nagusia hauxe izango da: trebakuntza-saioek hasiera data eta amaiera data zehatza izango dute. Trebatzailea ez da udaleko langileak, aldi oro, alboan izango duen makulua. Prestakuntza pertsonala amaitutakoan, eta salbuespenak salbuespen, langileak bere kabuz moldatu behar du.

Baliabide pertsonalak : "Itzultzaile/trebatzaile" bat.

3.2.3. Harremanak administratuekin

Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko 10/1982 Legeak arautzen duenarekin bat, udal administrazioarekiko harremanei dagokienez, Durangoko Udalak honako oinarritzko hizkuntz eskubi-deok aintzatesten dizkie bere administratuei:

- a) Udalarekin eta haren menpeko edozein erakunderekin euskarazko ahozko eta idatzizko harremanak izateko eskubidea.
- b) Udalak herritarrei bidalitako jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz joango dira. Herritarrak eskaria euskaraz egiten duenean euskaraz erantzungo zaio.
- c) Udal administrazioak ontzat hartuko ditu pertsona fisikoengandik eta juridiko pribatuengandik jasotzen dituen euskara edo gaztelania hutsezko berri-emate eta agiri guztiak.
- d) Ume eta gazteei zuzendutako komunikazioa, kasurik gehienetan, euskaraz joango da.
- e) Inprimaki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz edo euskaraz eskainiko dira.

3.2.4. Harremanak erakundeekin

Durangoko Udalak dokumentazio guztia hizkuntza ofizial bietan bidaliko die Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta euskararen gainerako lurraldeetako herri-administrazio eta erakunde ofizialei. Erakunde ofizial hauetakoren batek eurekiko komunikazioa euskaraz izatea eskatuko balu, Durangoko Udalak halaxe egingo luke.

Halaber, euskara ofiziala den eremuko erakunde ofizialek nahiz administrazio publikoek igorritako dokumentazioa gaztelania hutsean jasoko balitz, udalak agiri horiek itzuli eta euskaraz idatzita bidaltzeko prozedura jarriko du abian.

3.2.5. Jendaurreko ekitaldietan

Durangoko Udaleko kargu politikoez eta enplegatuek euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz hitz egingo dute Udalaren ekintza publikoetan. Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten badute, euskarari emango diote lehentasuna euskararen udal ordenantzan xedatutakoaren arabera.

Era berean, Udalak, ahal den guztietan, halako ekitaldiak bideratzeko izendatuko dituenak hizkuntza-gaitasun egokia dutenak izan daitezen zainduko du.

3.2.6. Udal batzordeak

Durangoko Udalaren osoko bilkuretan, gobernu batzordearen batzarretan edo informazio batzordeen batzarretan, partaideek nahi duten hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dute, eta hala jakinaraziko die organoko arduradunak. Behar izatekotan, organo bakoitzak aztertu eta erabakiko du zein bitarteko baliatu hizkuntza dela-eta bileraren funtzionamendua oztopatu ez dadin, eta kide guztien adierazpenak modu zehatzean entzun eta jaso daitezzen.

Durangoko Udalaren osoko bilkura, gobernu batzorde eta informazio batzordeetako deialdiak eta aktak ele bietan edo euskaraz egingo dira. Batzarrotako dokumentazioa ere, arian-arian, euskaraz ere aurkeztuko da, kontuan izanda betiere Udaleko Euskara Planak ezarritako lehentasunak eta epeak administrazio barruko euskararen erabilera sustatzeari dagokionez.

3.2.7. Udal erregistroko agiriak

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak agintzen duen legez, udaletxera sartzen eta udaletxetik ateratzen diren agiriak jatorriz idatzita dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan inskribatuko dira udal erregistroan. Agiriak ele bietan idatzita badaude, euskaraz baino ez dira inskribatu beharko.

Udal erregistroak egiten dituen ziurtagiriak eta gainerako dokumentuak ele bietan egingo dira, salbu eta eskatzaileak eskaria euskaraz egin badu. Kasu honetan, ziurtagiria euskaraz egingo da.

3.2.8. Udalaren argitalpenak

Udal ebazpen eta argitalpen guztiak ele bietan argitaratuko dira. Esaterako: bandoak, ordenantzak, ebazpen eta erabakiak, iragarkiak, udalaren web orria, aldizkariak, berripape-rak, gida eta antzeko argitalpenak. Edozein modutan izan daitezke euskara hutsean egingo diren komunikazioak, esaterako, haur eta gazteei zuzendutakoak.

3.2.9. Hizkuntza Paisaia

Durangoko Udalaren zerbitzuetako errotulazioa, iragarkiak eta seinaleak euskaraz edo ele bietan agertuko dira. Ele bietan agertzen direnean lehentasuna emango zaio euskarari IVAPek proposatzen dituen gomendioei jarraituz. Udaleko zerbitzuetako errotulazio, iragarki eta seinaleak esaten denean honakoez dihardugu:

- a) Bulego eta langoletako errotuluak eta bestelako adierazleak.
- b) Udalaren orri, inprimaki eta dokumentu guztien idazpuruak.
- c) Gomazko ziguiluak, seiluak eta antzeko tresnak.
- d) Udal langileen jantzietan txertatutako idazkunak.
- e) Udalaren ibilgailu eta makineriako idazkunak.

Kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreka izen guztiak, ofizialki, euskaraz idatziko dira eta halaxe agertuko dira errotulu eta plaketan.

Horietan guztietan ager daitezkeen toki izen guztien izen ofizialak udalak berak finkatuko ditu, betiere izenaren jatorrizko hizkuntza eta egungo idazkera-arauak errespetatuz. Alabaina, izen ofizialok ezarri aurretik, udalak irizpena eskatuko dio Euskaltzaindiari.

Era berean, hirigintza proiektu berrien ondorioz gerta daiteke hiri eta landa aldeko egoitzalde, eremu, kale berri, plaza eta gainerakoei izen ofiziala ezarri behar izatea; halakoetan ere, udalak irizpena eskatuko dio Euskaltzaindiari.

Trafiko seinale, bide eta zeharbideen adierazgarriak eta, oro har, udalak jarritako herribideko iragarpen guztiak euskaraz edo ele bietan idatziko dira, betiere ulergarritasuna eragotzi barik eta nazioarteko arauari jarraituz. Ele bietan joango direnetan lehentasuna emango zaio euskarari.

Euskaraz eta gaztelaniaz antzera samar idazten diren errotulazio, iragarki eta seinaleak, esaterako, "merkatua/mercado", "autobusa/autobus", "aparkalekua/aparcamiento", "ludoteka/ludoteca" eta holakoak, euskaraz idatziko dira.

Euskaraz eta gaztelaniaz antzera samar idatzi ez arren zabalera handia duten hitzak edo piktogramak baliatuz adierazi daitezkeenak euskaraz joango dira, esaterako, "isilik", "ez erre", "irteera/sarrera", "txakurrik ez", e.a.

3.3. Kontratazio Administratiboak

Durangoko Udalak hizkuntza-irizpideak hartuko ditu Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen administrazio-kontratuak gauzatzeko orduan.

Indarrean dagoen antolamendu juridikoari atxikitzeko eta gizartearen eta administrazioaren errealitatearekin koherente izateko, nahitaezkoa da ondasunak eta zerbitzuak eman eta hartzeko burutzen diren administrazio jardueretan gure autonomia-erkidegoko hizkuntza bietan normaltasunez funtzionatzea, baita administrazioaren kontratazio publikoaren alorrean ere, hala kontratazioaren helburu diren prestazioen hartzailea administrazio elebiduna denean, gure kasuan bezala, nola administrazioak enpresa pribatu baten esku jartzen duenean gurea bezalako gizarte elebidun bati eman beharreko ondasun eta zerbitzuak kudeatu eta emateko ardura.

Ildo horretatik, Durangoko Udalak onartutako 2007ko Euskara Planean eta EBPNren 2005-2008 Plan Estrategikoan jasota agertzen da Udalak hizkuntza-irizpideak hartu behar dituela bai Udalaren eta baita bere erakunde autonomoen administrazio-kontratuen pleguetan sartzeko.

Berariazko klausula administratiboen pleguko karatulan jaso beharrekoak.

Administrazio-kontratuen berariazko klausula administratiboen pleguaren karatulan, azpiatal bat jarriko da kontratuak gure antolamendu juridikoan ezarritako hizkuntza-araubide juridiko ofiziala bete behar duela adierazteko. Hona hemen horren edukia:

"Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilpena arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua.

Hizkuntza biak erabiltzea kontratua gauzatzeko baldintzetako bat da eta, bete ezik, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeak oro har dakartzan ondorio berberak izango ditu."

Berariazko klausula administratiboen pleguetako klausulak

Obra-kontratuetan

- Klausula bat sartuko da testu honekin:

"Errotuluak, oharra, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira".

- Udalarekiko harremanak:

a) ahozko komunikazioetan, normalean, euskara erabiliko da.

b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute."

Herri-lanen emakidetan

- Klausula bat sartuko da testu honekin:

"Errotuluak, oharra, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira."

Kontratuak herritarrei zerbitzuak ematea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da. Jendaurreko lanpostuetan diharduen langileak behar besteko hizkuntza gaitasuna behar du izan bere eginkizunen alorrean.

Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Hala ere, prestazioaren jasotzaileak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

- Udalarekiko harremanak:

- a) ahozko komunikazioetan, normalean, euskara erabiliko da.
- b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute."

Hornidura kontratuetan

- Klausula bat sartuko da testu honekin:

"Enpresa esleipendunak hizkuntza bietan eskainiko ditu erabilera-eskuliburuak eta kontratuaren xede diren ondasun eta produktuei buruzko dokumentazioa, softwareetako testuak barne."

- Udalarekiko harremanak:

- a) ahozko komunikazioetan, normalean, euskara erabiliko da.
- b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

Aholkularitza eta asistentzia kontratuetan eta zerbitzu kontratuetan

- Klausula bat sartuko da testu honekin:

"Kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu edo bestelako lanak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, softwareetako testuak barne."

Kontratuak hirugarrenei edo, oro har, herritarrei zerbitzuak ematea edo horiekin harremanak izatea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak eta erabiltzaileek edo harremanetan dauden pertsonak kontratua dela-eta burutu behar dituzten ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan hirugarrenak edo erabiltzaileak kasuan kasu aukeratutako hizkuntza erabiliko da.

Berariaz inolako aukerarik egin ez bada, kontratuaren esleipena duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Hala ere, herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

- Udalarekiko harremanak:

- a) ahozko komunikazioetan, normalean, euskara erabiliko da.
- b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan eta zerbitzuak ematea edo hirugarrenekin harremanetan jartzea eskatzen duten administrazio-kontratu berezietan

- Klausula bat sartuko da testu honekin:

“Esleipendunek euskara eta gaztelania erabiliko dituzte errotuluetan, megafonia bidezko komunikazioetan, erabiltzeko jarraibideetan, etiketetan eta ekoiztutako produktuen bilgarrietan, baita eskaintzen dituzten zerbitzuak emateko sortzen diren dokumentuetan ere.”

Kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak eta erabiltzaileek edo harremanetan dauden hirugarrenek kontratua dela-eta burutu behar dituzten ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan hirugarrenak edo erabiltzaileak kasuan kasu aukeratutako hizkuntza erabiliko da. Jendaurreko lanpostuetan diharduen langileak behar besteko hizkuntza gaitasuna behar du izan bere eginkizunen alorrean.

Berariaz inolako aukerarik egin ez bada, kontratuaren esleipena duen enpresak pertsona fisikoari eta juridikoari egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Hala ere, herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

- Udalarekiko harremanak:

- a) ahozko komunikazioetan, normalean, euskara erabiliko da.
- b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.”

Kontratu mistoetan

Kontratuaren xedearen araberrako klausulak sartuko dira, bateratzeak eskatzen dituen egokitzapenak eginda.

Kontratua gauzatzeko hizkuntza-baldintzak zenbateraino bete diren ebaluatuko da.

Euskara Sailari eskumena ematen zaio Durangoko Udalak eta bere erakunde autonomoak egindako kontratuetan ezarritako hizkuntza-baldintzak zenbateraino bete diren ebaluatzeko. Ebaluaketa kontratua gauzatzen ari den bitartean edo bukatutakoan egin ahal izango da.

Ebaluaketan, hizkuntzaren zuzentasuna eta komunikazioaren aldetik prestazioak izan duen kalitatea ere aztertu ahal izango dira.

Horretarako, Durangoko Udalaren Euskara Sailak bere zereginak behar bezala burutzeko behar duen informazio eta dokumentazio guztia eskatu ahal izango die kontratazio-organoei; halaber, kontsultatu ahal izango ditu Durangoko Udalaren eta bere erakunde autonomoen kontratazioei buruz Ogasun eta Pertsonal sailak dituen datuak.

3.4. Dirulaguntzak

Durangoko Udalak, euskara sailaren bitartez, dirulaguntza-deialdiak esleituko ditu euskararen sustapenaren inguruko zenbait alorretan, esaterako: euskara sustatzeko ekimenetarako, euskara darabilten aldizkarietarako, errotuluak eta web orriak euskaraz jartzeko eta euskalduntze-alfabetatze bekak banatzeko.

Durangoko Udalak, hala deritzonean, dirulaguntza nominatiboak esleituko ditu euskararen sustapenaren inguruan. Dirulaguntza hauek lankidetzeta-hitzarmenaren formulapean egingo dira.

Dirulaguntza-deialdiak zein dirulaguntza nominatiboak Durangoko Udaleko aurrekontuetan jasoko dira, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarriko.

Durangoko Udaleko sail ezberdinek deituriko dirulaguntza-deialdien onuradunek, ezinbestez, euskara edo euskara eta gaztelania erabili beharko dute argitaratzen dituzten iragarki, ohar, jakinarazpen eta holakoetan, halaxe ezartzen baitu Durangoko Udalaren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzeko ordenantza 6.8 artikulua, "onuradunen betebeharrak" izenekoa.

Dirulaguntza-deialdietako balorazio-irizpideetan puntu osagarriak esleituko zaizkie euskaraz burutuko diren jarduera eta programei.

Durangoko Udalak herriko kultur, kirol, aisialdi eta gainontzeko elkarten euskararen erabilera indartzeko, laguntza eta aholkularitza tekniko eskainiko die udaleko euskara zerbitzuaren bitartez. Esaterako, testu laburrak euskaratzeko eta zuzenketak egiteko, dirulaguntzen inguruko aholkularitza emateko, e.a.

3.5. Barne-harremanak

Ekimenak prestatuko dira udaleko langile euskaldunek euskaraz jardun dezaten euren artean ahozko eta idatzizko barne-harremanetan.

3.6. Baliabide informatikoak

Baliabide informatikoak euskaraz erabiltzeko ahalegina egingo da, beti ere, euskarazko bertsioek erdarazkoaren kalitatea ziurtatzen duten neurrian.

Windows eta Office programen euskarazko bertsioak, apurka-apurka, sartzea aurreikusten da.

Administrazio publiko eta erakundeek sarean dituzten baliabideak aprobeztatuko dira, esaterako: euskalterm, administrazio-idazkiak, hiztegiak.

3.7. Hizkuntza-irizpideak jasotzea Udalak antolatutako ekimenen eskaintzan

Udaleko sail guztiek, erakunde autonomoak barne, euskara-irizpidea hartuko dute kontuan dena delako plangintza, egitarau eta ekimenak prestatzerako orduan. Kultura, gazteria, hezkuntza, gizarte ekintza, berdintasuna, inmigrazioa eta kirol arloek euskaraz ere eskainiko dituzte tailer, ikastaro, hitzaldi eta holakoak. Era berean, ekintza iragartzen denean argi eta garbi adierazi behar da berau zein hizkuntzatan egingo den.

3.8. Hizkuntza-eskubideak bermatzeko zerbitzu publikoa

Durango Udalak, euskara sailaren bitartez, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzu publikoa jarriko du martxan. Horretarako, prozedura bat finkatuko du hizkuntza eskubideen urraketari konponbideak bilatzeko eta erantzukizuna duten administrazio eta erakundeen arteko lankidetzeta bideratzeko.

4. KUDEAKETA PLANEN KRONOGRAMA (2009-2012)

Euskara Plana behar den moduan garatu dadin eta ezarritako helburuak era mailakatuan eta eragingarrian erdietsi daitezzen, ezinbestekoa da plangintza-aldiko urte bakoitzaren hasieran Kudeaketa Plana aurkeztea.

Halaber, hurrengo urteko Kudeaketa Planari ekin baino lehen, behar beharrezkoa da urte amaieran ebaluazioa egitea aurreikusi diren edukiak bete ote diren ikusteko, lehenetsi diren langileak trebatu diren ikusteko, baliabide ekonomiko eta pertsonalak nahikoak ote diren baloratzeko, e.a.

4.1. Kudeaketa Plana 2009

Udala:

Zerbitzu Orokorrak	<u>2009</u>	<u>Planean</u>
Jendurrekoak	16	16
Gizarte izaerakoak	9	9
Izaera orokorrekoak		7
Guztira	25	33

Zerbitzu Ekonomikoak	<u>2009</u>	<u>Planean</u>
Jendurrekoak	2	2
Gizarte izaerakoak		
Izaera orokorrekoak		5
Guztira	2	7

Herritarren Segurtasuna	<u>2009</u>	<u>Planean</u>
Jendurrekoak		
Gizarte izaerakoak	35	35
Izaera orokorrekoak	1	1
Guztira	36	36

Zerbitzu teknikoak	<u>2009</u>	<u>Planean</u>
Jendurrekoak	3	3
Gizarte izaerakoak		2
Izaera orokorrekoak		6
Guztira	3	11

Erakunde Autonomoak:

Bartolome Ertzilla	<u>2009</u>	<u>Planean</u>
Jendurrekoak	1	1
Gizarte izaerakoak	17	17
Izaera orokorrekoak		
Guztira	18	18

Astarloa Kulturgintza	<u>2009</u>	<u>Planean</u>
Jendurrekoak	5	5
Gizarte izaerakoak	6	6
Izaera orokorrekoak		
Guztira	11	11

UKE – IMD	<u>2009</u>	<u>Planean</u>
Jendurrekoak	4	4
Gizarte izaerakoak	5	5
Izaera orokorrekoak	2	2
Guztira	11	11

Udal Euskaltegia	<u>2009</u>	<u>Planean</u>
Jendurrekoak	1	1
Gizarte izaerakoak	7	7
Izaera orokorrekoak		
Guztira	8	8

Laburbilduz, Euskara Planak jasotzen dituen 137 langileetatik, **2009ko Kudeaketa Planean, 114 langile sartuko dira.**

Trebakuntza saioetan lehentasuna izango dute, gizarte izaerako edota jendaurreko lanpostuak izan arren, izaera orokorreko zereginak ere egiten dituzten langileek. Esaterako, zerbitzu orokorretako 8 lanpostu (gizarte langilea, kultura teknikaria, aukera berdintasuneko teknikaria, 3. adinekoen teknikaria, gazteria eta kiroletako teknikaria, inmigrazio teknikaria, alkatetzako administraria, administrari laguntzailea), Bartolome Ertzilla Eskola 2 lanpostu (zuzendaria eta administraria) eta Udaleko Kirol Erakundeko 3 lanpostu (teknikaria, administratzailea eta administraria).

Aipatutako 13 langile hauek, esan bezala, izaera orokorreko lan-jardun asko egiten dituzte, hala nola, bileretako deialdiak, aktak, plangintzak, txostenak eta antzekoak. Horrexegatik lehenetsi dira. Kontuan izan behar da, aurreko plangintza-aldian, jendaurreko lanpostuak lehenetsi zirela, horrexegatik, oraingoan, gizarte izaerako 13 hauek lehenetsiko dira: gizarte izaerazko lan-jardun garrantzitsuak egiten dituztelako eta izaera orokorreko beste egiteko garrantzitsu batzuk ere daukatelako. Beste modu baten esanda: idatzizko produkzioa ezinbestekoa dutelako euren lanpostuei dagozkion gizarte izaerazko lan-jardunak behar den moduan betetzeko.

Halaber, lehentasuna izango dute Herritarren Segurtasuneko 36 langileek, hau da, ofizial buroak eta 35 udaltzainek. Plantilak prestatuko dira eta berauek zelan bete erakutsiko zaie, adibidez, atestatuak, isunak, txostenak eta holakoak.

Ebaluazioa: urte amaieran egingo da, eta abiapuntu modura erabiliko da hurrengo urteko plangintza diseinatzeko orduan.

4.2. Kudeaketa Plana 2010

Administrazio-atal elebidunetako izaera orokorreko lanpostuak lehenetsiko dira trebakuntza saioetarako. Posible bada, mikroplanetako langileak ere sartuko dira 2010eko Kudeaketa Planean.

Hurrengo Kudeaketa Planetako edukiak eta egin beharrekoak 2010eko ebaluazioa egin ostean aurreikusiko dira.

